

Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da baliabidez hornitzea

Hezkuntza Sailaren inprobisazioa, arduragabekeria, noraeza, itxurakeria, erabakiak aldebakarrez hartzea eta 2025eko irakaskuntza publikoan mobilizazio eta greba zikloi bukaera eman zieten akordioak bere osotasunean betetzen ez dituela salatzeak elkarretaratzea egin du LAB sindikatuak. 2026/27 ikasturteari hasiera emateko Hezkuntza Sailak Amurrioko Mendiko eskolan egin duen ekitaldiaren harira egin du. Era berean, sindikatuak ikasturte honetarako dituen erronkak azaldu ditu.

Lehenik eta behin, eskola publikoak dituen beharrei lehentasunez erantzutea eskatu du LABek. Horretarako, urtero aurrekontu-proiektuan gutxieneko inbertsioa Barne Produktu Gordinaren %6koa izan beharko litzatekeela azaldu du, Europako batezbestekoarekin parekatuz. Inbertsio horren bidez, besteak beste, azpiegiturak hobetu, eta baliabide pertsonalez hornitu beharko liratekeela adierazi du.

Bestalde, Akordioei esker hezkuntza publikoaren kalitatean aurrera-urrats garrantzitsuak ere eman direla gogorarazi du. Zentzu horretan, zerbitzuaren kalitatea hobetzeaz gain, jaiotze tasaren beherakadaren aurrean enplegu publikoa defendatu eta lanpostuak sortu direla adierazi du, baimen eta lizentzietan aurrerapausoak eman, kasuz kasu, urteko lanaldi murriztu edota soldaten ekiparazioak edo igoerak lortuz, besteak beste.

Alta, Heziketa Berezian hezkuntza zerbitzua berme guztietan emateko ezinbestekoa den baliabideak esleitzeko irizpideen akordioa ez dela garatu salatu du LABek, abenduaren 31n iraungitzen den Heziketa bereziko Lan Hitzarmenean jasotzen bada ere, sailak 2024ko abendutik ahalagintza egin ez duela. Jardun erdian dauden 300 lanpostu baino gehiago lanaldi osora pasatzeko planik ez dagoela ere salatu du, LABek proposamen zehatzak egin baditu ere.

Data berean iraungiko den Haurreskolak Partzuergo Publikoan 2025ean sinatutako Lan Hitzarmena aitzakiak aitzaki, oraindik ez dela EHAA-n argitaratu azaldu du sindikatuak, hori dela eta hezitzaile eta kudeaketa alorreko kolektiboetan lortutako hainbat eskubide ez dira ari betetzen.

Zerbitzuetako langileen kasuan, sukaldari, garbitzaile zein IKTKo langileen hitzarmena ez dela da osotasunean garatu dio LABek, besteak beste, sortu behar diren hainbat langile kategoria oraindik ere sortu gabe jarraitzen dute, eta sukaldari eta garbitzaileen LEP deialdiaren agindua negoziatzia bukatu gabe eta aldebakarrez argiratu duela salatzen du LABek.

Hezkuntza Sailaren jarreraren aurrean, aipatutako kolektibo hauei dagokien hainbat afera judizializatu zituen LABek aurreko ikasturtean eta hasi berri den honetan, negoziazioak edukiz bete ezean, ekin-tzak indartuko dituela baieztatu du sindikatuak.

Irakasleei dagokienez, Hezkuntza Sailak erabilitako irizpide murriztaileen ondorioz, ikastetxeek 2026-27 ikasturtean behar baino baliabide gutxiago jasoko dituztela salatu du LABek. Izan ere, etapa guztietan irakastorduen murrizketak lortu badira ere, ez dute behar besteko inpakturik izan baliabideen esleipenean. Haur eta Lehen Hezkuntzan, irakastorduak 23tik 21era jaitsiko badira ere, ordu-konpentsazioa aldebakarrez eta modu murriztailean aplikatu du Sailak, bigarren urtez. Bigarren Hezkuntzan, berriro, Hezi+ programako irakastorduak ordu osagarri gisa ezarri ditu, eta ez die ikastetxeei gehienezko 18 irakastorduetatik 17ra jaisteko behar adina baliabide eman. Era berean, EHI figura egonkortu bada

ere, ikas-talde guztiak kontuan hartu beharrean, Lehen Hezkuntzako 2. mailara artekoak soilik hartu dira kontuan; halaber, Lehen Hezkuntza osoan ratioa 22 ikaslekoa izatea adostu arren, neurri hori lehenengo mailan bakarrik aplikatu dela salatu du LABek. Azkenik, gai horiek judizializatuta daudela gogorazti du sindikatuak.

LABek Imanol Pradales lehendakariaren egiteko modu berriak sindikatuari aski ezagunak zaizkiola adierazi du; izan ere, mobilizazioen eta greben presiopean baino ez dela mugitzen salatu du. Beraz, foro, negoziazio-mahai eta elkarrizketarako marko ponpoxoak irudikatzeari uzteko, akordioak betetzeko eta eskola publikoaren beharrei erantzungo dieten benetako eduki eta neurriak mahai gainean jartzeko eskatu du sindikatuak, baita alde soziala aintzat hartuko duen benetako negoziazioa egiteko ere. Hitzetatik ekintzetara pasa dadin exijitu dio.

Bestalde, LABek langileen gaia sindikatuokin adostea eskatzearekin batera adierazi du eskola publikoen fusioa ezin dela inolaz erabili eskola publikoak duen perimetroa murrizteko, eskola publikoak ixteko, eta ondorioz, D ereduko ikaspostu publikoak murrizteko.

Kalitatezko hezkuntza publikoa izateko, langileen lan-osasuna bermatzea ezinbestekoa dela gaineratu du LABek. Zentzu horretan ikasle zein langileek egunero jarduten duten azpiegiturak osasuna bermatuko duten espazio seguruak izan behar dira. Larrialdi klimatikoak eragindako muturreko tenperaturek agerian utzi dute eraikinak berritzu edo berriak sortu behar direla, izan ere, badira zenbait zentro guztiz zaharkiturik daudenak eta dituzten instalazioek ez diotela erantzuten neguko hotz zein udako beroari. Era berean, Hezkuntza Sailak lan-osasunari modu integralean erantzun behar diola adierazi du LABek. Administrazioak 30 urte baino gehiago daramatza prebentzio neurriak bete gabe, eta egun dauden protokoloak ez dira eraginkorrak. Are gehiago, geroz eta sarriagoak diren ikasleen erasoan aurrean, administrazioak prebentzio lana ez betetzeaz gain langileak babesgabe uzten dituela salatu du LAB sindikatuak. Udara honetan unibertsitateko sarrera frogetan gertatutakoa gogora ekarri du LAB sindikatuak, izan ere, Pedrosa sailburuak bere langileak babestu beharrean haien profesionaltasuna zalantzan jarri eta gutxiengo baten pribilegioak defendatu eta hauspotu zituen. LABek langileen lan-osasuna bermatzeko baliabide pertsonalak, formakuntza, ikaspostuen azterketa psikosozialak, azterketa medikuak eta protokolo eraginkorrak exijitu ditu, besteak beste.

Azkenik, Euskara eta euskal kurrikulumean eragiteko urratsak eman daitezen lanean jarraituko duela adierazi du LABek Euskal Eskola Publiko Komunitarioaren bidean. Hau da, burujabea izango den eta sare publiko berri bakar deszentralizatuan antolatuko den hezkuntza eredu propio eta berria sortzea: unibertsala eta doakoa; euskararen murgiltze eta mantentzen ereduan oinarritutakoa; inklusibitatea oinarri izango duena; laikoa; pedagogia feminista bultzatuko duena eta ikastetxeen autonomia eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea sustatuko duena.

Para reforzar la educación pública es imprescindible dotarla de recursos

El sindicato LAB ha llevado a cabo una concentración para denunciar la improvisación, irresponsabilidad, falta de rumbo, escenificación y toma unilateral de decisiones por parte del Departamento de Educación. Asimismo, ha denunciado el incumplimiento íntegro de los acuerdos que pusieron fin al ciclo de movilizaciones y huelgas en la enseñanza pública en 2025. La concentración se ha realizado con motivo del acto organizado por el Departamento de Educación en la escuela Mendiko de Amurrio para dar comienzo al curso 2026/27. Asimismo, el sindicato ha dado a conocer los retos que se plantea para este curso.

En primer lugar, LAB ha reclamado que se dé **respuesta prioritaria a las necesidades de la escuela pública**. Para ello, ha señalado que la inversión mínima anual contemplada en el proyecto presupuestario debería situarse en el **6 % del Producto Interior Bruto (PIB)**, equiparándose a la media europea. Ha indicado que, mediante esta inversión, deberían mejorarse, entre otras cuestiones, las infraestructuras y dotar a los centros de los recursos humanos necesarios.

Por otro lado, ha recordado que, **gracias a los acuerdos alcanzados, también se han dado pasos importantes para mejorar la calidad de la educación pública**. En este sentido, además de mejorar la calidad del servicio, se ha defendido el empleo público ante el descenso de la natalidad y se han creado puestos de trabajo. También se han producido avances en permisos y licencias, se ha reducido la jornada laboral anual en determinados casos y se han conseguido equiparaciones o incrementos salariales, entre otras medidas.

Sin embargo, LAB ha denunciado que en Educación Especial **no se ha desarrollado el acuerdo sobre los criterios para la asignación de los recursos humanos, un acuerdo que el sindicato considera imprescindible para garantizar el servicio educativo con todas las garantías**, a pesar de que está recogido en el Convenio Colectivo de Educación Especial, que expira el 31 de diciembre. El sindicato señala que el Departamento no ha realizado ningún esfuerzo al respecto desde diciembre de 2024. Asimismo, ha denunciado que no existe ningún plan para convertir en jornada completa **más de 300 puestos de trabajo que actualmente tienen una jornada parcial**, pese a que LAB ha presentado propuestas concretas.

En el caso del **Consorcio Público Haurreskolak**, LAB ha explicado que, el Convenio Colectivo firmado en 2025, cuya vigencia también expira en esa misma fecha, todavía no ha sido publicado en el BOPV. Ante esta situación el departamento sigue poniendo sucesivas excusas para justificar el retraso. Como consecuencia de ello, **varios derechos alcanzados por los colectivos de personal educativo y de gestión no se están aplicando**.

En cuanto al personal de servicios, LAB ha señalado que **el convenio del personal de cocina, limpieza y TIC tampoco se ha desarrollado en su totalidad**. Entre otras cuestiones, varias categorías profesionales que deberían haberse creado continúan sin existir. Asimismo, LAB denuncia que el Departamento ha publicado unilateralmente la orden de convocatoria de la OPE de personal de cocina y personal de limpieza, sin haber concluido previamente la negociación.

Ante la actitud del Departamento de Educación, LAB llevó a los tribunales durante el curso pasado varias cuestiones relacionadas con estos colectivos y, de cara al curso que acaba de comenzar, el sindicato ha afirmado que en el caso de que **las negociaciones no se doten de contenidos reales intensificará sus acciones**.

En lo que respecta al profesorado, LAB ha denunciado que, **como consecuencia de los criterios restrictivos utilizados por el Departamento de Educación, los centros recibirán durante el curso 2026/27 menos recursos de los que necesitan**. De hecho, aunque se han conseguido reducciones de horas lectivas en todas las etapas, estas no han tenido el impacto suficiente en la asignación de recursos. En Educación Infantil y Primaria, aunque las horas lectivas se reducirán de 23 a 21, el Departamento ha aplicado por segundo año consecutivo la compensación horaria **de manera unilateral y restrictiva**. En Educación Secundaria, por su parte, mediante el programa Hezi+, ha establecido como horas complementarias aquellas que en el futuro serán horas lectivas, y no ha proporcionado a los centros los recursos suficientes para reducir de 18 a 17 el máximo de horas lectivas. Asimismo, aunque se ha estabilizado la figura de EHI, en lugar de tener en cuenta todos los grupos de alumnado, únicamente se han considerado los correspondientes hasta **2.º de Educación Primaria**. Del mismo modo, pese a haberse acordado establecer una **ratio de 22 alumnas y alumnos en toda la Educación Primaria**, LAB ha denunciado que esta medida únicamente se ha aplicado en el primer curso. Por último, el sindicato ha recordado que **estas cuestiones se encuentran judicializadas**.

LAB ha señalado que las nuevas formas de actuación del lehendakari **Imanol Pradales** son ya suficientemente conocidas por el sindicato, y ha denunciado que el Departamento únicamente se mueve bajo la presión de las movilizaciones y las huelgas.

Por ello, el sindicato le ha reclamado que **deje de escenificar foros, mesas de negociación y marcos de diálogo grandilocuentes**, que cumpla los acuerdos, que ponga sobre la mesa contenidos y medidas reales que respondan a las necesidades de la escuela pública y que lleve a cabo una negociación real que tenga en cuenta a la representación social. LAB le exige que **pase de las palabras a los hechos**.

Por otro lado, LAB ha señalado que, además de exigir que las cuestiones relativas al personal sean acordadas con los sindicatos, **las fusiones de escuelas públicas no pueden utilizarse en ningún caso para reducir el perímetro de la escuela pública, cerrar centros públicos y, como consecuencia, reducir las plazas públicas del modelo D**.

LAB ha añadido que, para garantizar una educación pública de calidad, **es imprescindible garantizar la salud laboral trabajadoras y trabajadores**. En este sentido, las infraestructuras en las que alumnado y personal desarrollan su actividad diariamente deben ser espacios seguros que garanticen su salud. Las temperaturas extremas provocadas por la emergencia climática han puesto de manifiesto la necesidad de **rehabilitar los edificios existentes o construir nuevos centros**, ya que algunos se encuentran completamente obsoletos y sus instalaciones no responden adecuadamente ni al frío del invierno ni al calor del verano.

LAB ha señalado que el Departamento de Educación debe abordar **la salud laboral de manera integral**. La Administración lleva más de 30 años sin cumplir adecuadamente las medidas de prevención y los protocolos existentes actualmente no son eficaces. Además, ante las agresiones del alumnado, cada vez más frecuentes, el sindicato LAB ha denunciado que la Administración, además de incumplir su labor preventiva, **deja desprotegido al personal trabajador**. LAB ha recordado lo ocurrido este verano en las pruebas de acceso a la universidad. En aquella ocasión, la consejera Pedrosa, en lugar de proteger a sus

trabajadoras y trabajadores, **puso en duda su profesionalidad y defendió y alentó los privilegios de determinados sectores minoritarios**. LAB ha exigido, entre otras medidas, **recursos humanos, formación, evaluaciones psicosociales de los puestos de trabajo, reconocimientos médicos y protocolos eficaces** para garantizar la salud laboral de las trabajadoras y trabajadores.

Por último, LAB ha señalado que continuará trabajando para que se den pasos en favor del **euskera y del currículum vasco**, avanzando hacia una **Escuela Pública Vasca Comunitaria**. Esto supone crear un modelo educativo propio y nuevo, **soberano y organizado en una única red pública descentralizada**: universal y gratuito; basado en un modelo de inmersión y mantenimiento del euskera; que tenga la inclusión como uno de sus pilares; laico; que impulse una **pedagogía feminista**; y que fomente la autonomía de los centros educativos y la participación de la comunidad educativa.